



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2021/08/12AN**

### **Gaur egungo egoera Arabako Errioxan**

Abuztuko lehen egun hauetan ez du euririk egin eta uda garaiak berezko dituen tenperaturak izan dira; ez du bero handirik egin, egun bakanen batean salbu.

Baldintza horiei esker, mahastiaren zikloak normaltasunez egin du aurrera. Zatirik handienari, oraintxe bertan, egun gutxi batzuk baino ez zaizkio falta heltze bete-betean egoteko (M2 egoera, Baggioliniren sailkapenaren arabera).

Gaur egungo osasun baldintzak ezin hobeak dira, eta ez dago aipatzeko moduko izurri edo gaixotasunik. Hala ere, abuztuan, mahastia behatzen eta prebentzio zainketak egiten jarraitu beharko da mahastia babestuta izateko orain hasi den heltze prozesu osoan.

Neguan eta udaberrian ur eskasia izan da, eta ekainetik hona euririk egin ez izana nabaritzen ari da. Hori dela eta, beharrezko azpiegitura eta baliabideak dituzten tokietan, mahastiak ureztatzen ari dira. Une honetan, on egingo lioke mahastiar euri apur batek, landareak freskatzen eta zikloak abiadura arruntean aurrera jarraitzen lagunduko bailuke.

Mahastia ikusita eta udako lehenengo bero bolada aipagarriaren atarian gauden honetan, zeinak garapena aldi batez motelduko baitu ziur, aurreikus daiteke 2021eko kanpaina honetan mahats bilketa oro har irailaren 20ko astetik aurrera egingo dela Arabako Errioxan azalerarik handiena hartzen duen barietatean, hots, Tempranilloan.

Iragarri dugun bezala, aparteko klima istripu edo jazoerarik gertatzen ez bada, Kontseilu Arautzaileak kanpaina honetarako ezarritako maximoetara arazorik gabe iritsiko da ekoizpena, salbu ekaineko ekaitzek gogorren jotako mahastietan.

## **Arabako Txakolinaren gaur egungo egoera**

Aiaraldean, abuztuko lehen egunetan tenperatura erregistroak normalak izan dira, eta ez du euririk egin, salbu hilaren 4an botatako euri erauntsia, zeinak 20 litro inguru utzi baitzituen metro koadroko. Egun hartan botatako urak on egin zion mahastiari, aurtan, eremu hartan ere, eurien balantzea negatiboa izan baita.

Mahastia heltzen hasi da (M1 egoera), eta osasun egoerak bikaina izaten jarraitzen du.

Horiek horrela, baldin baldintza meteorologikoez bere horretan jarraitzen badute, aspaldi, klima aldaketaren ondorioz zikloa aurreratu baino lehen, ohikoa zen garaian egingo da mahats bilketa, alegia, irail amaieran. Arabako txakolinaren eremuan ere mahats bilketa ez da oso ugaria izango.

Guardia, 2021eko abuztuaren 12a

**MAHASTIZAINZTA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA  
AFA-KO NEKAZARITZA SAILA**